

## **ZUMAIAKO UDALA.-**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA.-**

### **2005EKO ABENDUAREN HOGEITA BEDERATZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila eta bosteko abenduaren hogeita bederatzian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.  
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

### **1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA: (2005.11.24).-**

Alkate-Lehendakariak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktari korporazioko kideren batek zuzenketarik egin nahi dion galdetu du.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta EA-ko zinegotzi jaunak zera dio, aktaren euskarazko alean 7. Orrialdean Odieta-San Jose birurbanizatzeko planaren barruan, Udala garajeak besterentzea aztertzen ari dela dioela eta berak ordezkatzeko duen alderdia ez dagoela ados lur publikoa besteretzearekin.

Bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2005-11-24ko akta, EA alderdiaren aipamena kontuan izanik.

## **2.- EUSKADIKO UDAL ADMINISTRAZIOETAKO LANGILE-RIAREN ENPLEGU BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.**

Hazienda Batzordeko Lehendakariak aurkezpen gisa zera dio, EUDEL eta Sindikatuen arteko negoziazio luze baten ostean, abenduak 19ko dataz onartu dela Euskadiko Udal Administrazioetako langileriaren enplegu baldintzak araupetzen dituen akordioa.

Akordioa izenpetu duten sindikatuak ELA, CCOO eta UGT izan dira. Azken unerarte mahaian ihardun duen LAB kanpo gelditu delarik.

Hazienda Batzordean aztertu zen eta lehen bait lehen eraginkor izan dadin eta Zumaiako Udal langileriari zuzenki aplikagarria gerta dadin, onarpenera luzatzen da.

Ondoren Idazkariak akordioaren punturik aipagarrien laburpen bat egiten du: 2006ko martxoak 1erako akordio orokorra izenpetzeko konpromezua; Soldaten igoera 2005erako % 4,1; Udalak deitzen dituen kontratazioak arautzen dituzten baldintza Pleguetan Lan Arriskuen prebentzioa sartzea langileen subrogazioarekin batean; plantilen tenporaltasuna %6 -ra murriztea etbr...

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 13 (5 E.A.J, 3 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE, 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: 9 ( 5 EAJ, 2 EA, eta 2 PSOE ).

Aurkako botuak: 3 IZUSTARRI

Abstentzioak: 1 EB-BERDEAK.

### **ERABAKI DA:**

2005eko Abenduak 19ko dataz EUDEL eta ELA, CCOO eta UGT-ek onartu duten Euskadiko Udal Administrazioetako langileriaren enplegu baldintzak araupetzen dituen akordioa, onestea.

## **3.- TAXI ZERBITZUAREN 2006-KO TARIFAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

Zera adierazten da, Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak eskualdeko taxi zerbitzuaren 2006ko tarifak eguneratzeko proposamena luzatu duela.

Proposamena, Urola Kostako Udal Elkarteko Batzorde Exekutiboak azaroaren 23an egin zuen bilkuran onartu zuen eta indarrean dauden hiri barruko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %4 igotzea suposatzen du.

Beraz tarifak honela geldituko lirateke:

<b>TARIFEN PROPOSAMENA 2006</b>					
<b>1. TARIFA *</b>			<b>2. TARIFA **</b>		
<b>Abiasaria</b>	<b>Ibilitako kilometroa</b>	<b>Itxaronaldia orduko</b>	<b>Abiasaria</b>	<b>Ibilitako Kilometroa</b>	<b>Itxaronaldia , orduko</b>
<b>2,78</b>	<b>0.8709</b>	<b>16.64</b>	<b>2.78</b>	<b>1.3890</b>	<b>26.15</b>

- Tarifa hau aplikatuko da lanegunetan, 07:00etatik 23:00etara.
- Tarifa hau aplikatuko da egunero 23:00etatik 07:00etara. Tarifa hau aplikatuko da, baita ere, igandetan eta jaiegunetan (Autonomia Erkidegoko eta Toki araudiek ezarritakoaren arabera ) 07:00etatik 23etara, eta larunbatetan 14:00etatik aurrera.

Bozketa planteatuta, Udalbatza eskubidez eta egitatez osatzen duten hamahiru zinegotzien aho batasunean ONARTU DUTE:

LEHENENGOA: 2006rako Auto taxi zerbitzuaren tarifak eguneratzea azalpenen zatian jasotzen den proposamenaren arabera.

BIGARRENGOA: Akordio honen ziurtapena Urola Kostako Mankomunitateari igortzea.

*PSOE-k dokumentuaren berri izan ez duela eta azalduko kexari Izustarrik erantzuten dio Mankomunitatean aztertutikoa den neurrian horren berri izan behar zuela.*

#### **4.- 2005EKO 8. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

Hazienda Batzordeko Lehendakariak Kreditu Aldaketaren arrazoia, 2006ari begira haurreskola zerbitzua martxan jarri dadin diru izendapena egokitzea dela dio.

Haurreskola jasoko duen eraikuntza, orain artean gaztetxolak erabili duena izango da. Horretarako egin beharreko eraikuntza egoitzapen lanak bikoitzak dira. Hau da batetik gaztetxola ohia, haurreskolatarako egokitu eta bestetik gaztetxolari lokal berriak egokitu.

Beraz lan hauek egiteko proposatzen da Kreditu Aldaketa.

Proposamenak, Batzordearen aldeko erizpena ere badu.

Jarraian Kreditu aldaketa proposamenaren berri ematen du:

**2.005EKO 8 ZK-KO KREDITU ALDAKETA ETA**  
**KONPROMISO KREDITUAL ALDATZEKO**  
**PROPOSAMENA**  
 PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 8 -  
 2.005 Y MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS DE  
 COMPROMISO

	<b>GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA / Aumento partidas de gasto</b>	<b>240.000,00</b>
	<b>VI. KAP. - Inbertsio errealak</b>	
	<b>Inversiones reales</b>	<b>145.300,00</b>
1-06-00-622-422-00-02	Haurreskola	120.000,00
1-06-00-622-451-40-01	Gazte informazio bulegoa	25.300,00
	<b>VII. KAP. - Kapitalezko transferentziak</b>	
	<b>Transferencias de capital</b>	<b>94.700,00</b>
1-06-00-721-442-10-01	Garbigunea (Urola Kosta udal elkartea)	94.700,00
	<b>GASTU PARTIDEN GUTXITZEA / Disminución partidas de gasto</b>	<b>240.000,00</b>
	<b>VI. KAP. - Inbertsio errealak</b>	
	<b>Inversiones reales</b>	<b>240.000,00</b>
1-06-00-622-435-00-01	Udaletxeko berrikuntza	240.000,00

Konpromisuzko kredituen aldaketa	2.006	2.007	2.008
Udaletxeko berrikuntza	960.000	1.200.000	
Haurreskola	60.000		
Gazte informazio bulegoa	124.700		

Alderdieri luzaturiko hitz txandan IZUSTARRIK, Haurreskola zerbitzua eskaini dadin lokalak egokitzearekin ados daudela adierazten du. Hala ere, beraien bozka Kreditu Aldaketaren aurkakoa izango dela dio. Ezezkoaren arrazoia, Kreditu Aldaketak momentu puntaletan egin behar direla da eta gurean ohiko mekanismoak bihurtzen ari direla da. Jadanik aurten, onarpenera 8. Kreditu Aldaketa proposatzen da. Erraztasun gehieniz erabiltzen da. Ihazko urtean 2005eko aurrekontuetarako gure alderdiak Haurreskolarako diru izendapena eskatzen zuen eta ez zitzaigun onartu eta orain Kreditu Aldaketa bidez sartu nahi da.

EAJ-ak erantzuten du 2005eko aurrekontu egitasmoa egin zenean zuek aurkeztutako proposamena ez zen onartu, Haurreskola non zihoan ere ez genekielako eta hori ez jakin da aurrikuspenik egiterik ez dago edo oso aurrikuspen ezbedinak egitera bultzatzen zaitu.

Ondoren bozketa egiten da,

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13  
Bilerara bertaratuak: 13 (5 E.A.J, 3 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE, 1 EB-BERDEAK)  
Aldeko botuak: 9 ( 5 EAJ, 2 EA, eta 2 PSOE ).  
Aurkako botuak: 4 IZUSTARRI eta 1 EB-BERDEAK.

#### ERABAKI DA:

Akordio honen azalpenen zatian jasoriko 2.005eko 8 zk-ko kreditu aldaketa eta konpromiso kredituala aldatzeko proposamena onartzea.

Alkate-Lehedakariak, Eguneko aztergaieko 5. (2006ko Aurrekontu Orokorren onarpena) eta 6. ( 2006ko Lehenengo Kreditu aldaketaren onarpena) Puntuak erretiratu egiten dituela adierazten du, beraz ez dira eztabaidatu eta bozkatuko. Puntuak erretiratzeko gaitasuna Gorporazio Lokaletako Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiko 91,3 artikulua eskaintzen dio Alkateari, baldin eta gaia aurrera ateratzeko gehiengorik ez badauka.

IZUSTARRIK dio Alkateak Gai Ordenetik gaiak erretiratzeko duen ahalmenaren informazioa Osoko bilkuraren haseran adierazi behar zela, gainerantzean informazioa gobernuko alderdiaren interesetarako erabiltzen dela.

EAJ-ak erantzuten dio beraien intereserako ez dagoela ezer. Araudia jarraituaz gaiak erretiratu besterik ez dela egin.

PSOEren iritziz, Alkateak Gai Ordenean barneraturiko gairen bat aurrera ateratzeko gehiengorik ez badauka, Arautegiak Gai Ordenetik erretiratzeko ahalmena eskaintzen dio. Erabaki hori hartu du, gobernu taldean akordiorik ez dagoelako aurrekontu egitasmoa aurrera ateratzeko. Egin zezakeen hauturik egokiena da kontuan badugu, gobernu taldearen erantzukizuna dela aurrekontu egitasmoa aurrera ateratzea. Aurrekontuak bozkatu izan balira eta ez balira aurrera atera Alkateak bere karguarekiko konfidantza kuestioa ere aurkeztu zezaken.

Agian baliteke, elenganteagoa izatea, Osoko bilkuraren haseran 5. eta 6.gaiak erretiratzeko asmoa adieraztea, baina besterik gabe.

#### **5.-GALDE-ESKARIAK.-**

Alkate-Lehendakariak gorporaziokideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

EA-ko bozemaileak, 2006ko Aurrekontu Orokorren onarpenaren eztabaida, Gai Ordenetik erretiratzearekin ezadostasuna adierazten du. Eta PSOE-ko ordezkariak informazio pribilegiatua izatea deigarria iruditzen zaiela gaineratzen du.

Aurrekontuei botua eman ahal izan balu bere ezadostasuna agertzearen arrazoiak ematen ditu.

Odietako egitasmoari dagokionez ontzat ematen dugu Torreberri berrabiltzea aldiz etxebizitzak bota eta berriak eraikitzeke gestio sistemaren aurka gaude.

Ez dugu logikoa ikusten bertako jabeeri eransten zaizkien kargak. Operazioa ia bideragarria ez denerate. Hirigintz fitxa era horretan dago egituratua. Fitxa atipiko baten aurrean gaudela esan genezake. Zergatik erantsi zaio horrelako urbanizazio bati hainbeste karga? Borondate politikoa dagoelako. EAJ-ek egiten duen planteamendua ez da berria. Aurretik Alhondigarako ere planteamendu berdina egin zuen. Alhondigaren eraikuntzaren behekoaldea izaera kulturalerako gela gisa egokitzea eta goran etxebizitzak eraikitzea. Era horretara, berrabiltzearen galera eraikuntzaren goialdeko etxebizitzak salduaz konpentsatuko litzateke. Hirigintz fitxa horrela dago.

Plazak eta kaleak hiritartu daitezenezaren alde gaude, baina jabeeri gehigarri eskaini gabe.

Zergatik ez erabili berdintasun printzipioaren arabera horrelako eskaintzarik udaleko beste gune batetako jabekideekin, adibidez Gau Txorin?

Beste gai bat aipatugabe uzterik ez nuke nahi, Basustako terrenoen jabetzari buruzkoa hain zuzen. Lur zati hauen jabe udala izan behar du eta ez Zumaia Lantzen S.A. Paradogikoa da gainera orain artean aprobetxamendurik aurrikusten ez zen gunean orain bertan etxebizitzak eraiki behar direla mantentzea.

Zentzu honetan udal Idazkariari txosten bat eskatzen diogu zehaztu dezan zein xedapen juridikoetan oinarritzen den Zumaia Lantzen S.A lursailen erosketarako.

Alkateak EAJren izenean gazteleraz erantzungo duela adierazten du gaiaren izaeragatik eta zinegotzi guztien ulergarritasunaren mesedetan.

Odietako hirigintz fitxak guneari ezagutzen dion aprobetxamendua 24 etxebizitza gehi 9 da. Azken 9 hauek hiritartze operazioaren bideragarritasuna bermatzeko aurrikusten ziren.

Udalak, Eusko Jaurlaritzak gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egitarauari laguntzeko IZARTU programaren barruan eskaera luzatu zuen hirigintz unitate hau exekutatu zedin zituen zailtasunaz jabeturik, eta azkenik, dirulaguntza garrantzitsua lortu dugu.

Odieta dirulaguntzaren onuradun ez da kasualitatez sortatu, baizik eta Zumaian, araudiak finkatzen dituen baldintzak betetzen dituen gune bakarretako bat delako. Odieta barneratua dagoen zentsu esparruko biztanleen ikasketa maila hartu da kontuan, langabezi tasa, dirusarrerak, hirigintz konfortabilitatea etbr... Odieta biztanleek IZARTUK finkatzen dituen ukan beharrak betetzen dituzte eta guneak ere bai.

Beraz aurrikuspena 24 etxebizitza berri eraikitzea izango da aprobetxamendu guztia agortu gabe utziaz eta hirigintz antolaketa egokiago bat lortuaz.

Hirigintz fitxa honek bilakaera aipagarri bat izan du gaur egun ezagutzen duguna izatera iritsi arte. Arau Subsidiarioen berrikuspenaren hastapenetan, eraldaketa sakonagoa zen, ezker aldean dauden eraikuntzak ere eraitsi eta berriak egitea proposatzen bait zen. Baina fitxaren onarpen prozesuan plazatik begiratuta ezker aldean gelditzen diren etxebizitzetako jabeak aurka azaldu ziren, EA-k beraiekin bat egin zuen eta arauak idazten ari zen talde teknikoak azkenean, proposamena onartu eta Udalak

oharpena bere egin zuen. Aprobetxamendua jaitsiaz eta hirigintz zamak gehituaz, orain, etxebizitza gutxiagoren artean zama guztia banatu behar da. Ez da ez "atipikoa" den hirigintz fitxa bat. Udal Batza Osoak onartu zuen, ( EA-ren aldeko botuak barne) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak. Beste edozein fitxa izan daiteken gisa, Hirigintz fitxa bat besterik ez da.

Fitxa honetan bertan gestio sistema gisa kooperazioa finkatzen da. Zer suposatzen du gestio sistema honek ?, Hirigintz lanak Udalak egiten dituela, jabekeeri kostuaren fakturak kobratuaz.

IZARTU-ren dirulaguntza lortu dela kontuan izanik, gunearen hiritartze lanak gehitu egin dira, bi igogailu planteatzen dira, bata lurpeko garajeetatik San Juan Egoitzara igogailu panoramikoa eta bestea Torreberri-Ludotekatik Forondara akzesibilitatea hobegotuz. Obra hauek IZARTU eta Udalaren finantziarioari esker egiten dira. Egitasmo handi bat da eta onura lortzeko asmorik gabe egiten da.

Etxebizitza ordezkaketa egiten den kasuetan jabeeri egin zaien eskaintzak baldintza hauek betetzen ditu:

- .-Proiektuaren bideragarritasuna.
- .- Jabeeri kalterik ez sortzea.
- .- Eta Udalaren dirurik ez ikuitzea.

Hirigintz eraldaketa proiektu horretatik sortuko diren etxebizitza gehiago horiek, Proiektuek zer esango dutenaren zain, merkatu libreko prezioen azpitik salduko dira.

Obra guztia burutzeak ( etxebizitza zaharrak bota eta berriak eraiki, lurpeko garajeak, hiritartze lanak ... ) orohar zailtasun nabarmeneko lana emango du.

EA-k proposatzen duena Udalak hiritartze lanak egin ditzala eta etxebizitzak pribatuek egin ditzatela.

Promotore-eraikitzailearentzat interesgarria ez den neurrian hiritartze lanaz salbuetsita utzi.

Lurzoru erreserbari dagokionez, ondasunok osatzen duten ondarea, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko edo gizartearentzat interesekoak diren beste helburuak lortzeko erabili behar da. Lurzoru Ondare Publikoaren Legeak jasotzen duen erreserba mekanismoa Udaletxe gutxik erabiltzen ba dute ere legeak jasotzen du. Garaia heltzen denean Udalak erabakiko du basustagainaren erabilera.

Bestalde Zumaia Lantzen S.A bere osotasunean Udalaren kapitalaz osatutako enpresa izanik, bere ondasun guztiak udalarenak dira. Zumaia Lantzenen helburu soziala besteak beste lurra erostea da eta Udalak Zumaia Lantzen eratu bazuen lurraren erosketan eragina izan zedin izan zen.

EA eta EAJ-ren artean iritzi trukaketa izaten da.

EA-k dio hirigintz fitxa hori onartu bazuten negozioazioen esparruan izan zela, EAJ-k, EA-k aurkeztutako oharpenak fitxak hirigintz aprobetxamendu gehiegi aurrikusten zuela izan zela, eta onartu egin zela. EA-k dio fitxaren lehenengo planteamenduari zegokion oharpena izan zela, orain IZARTU daukagula. EAJ-ak dio zama horiekin IZARTU gabe edo Udalaren bultzadarik gabe ez zela ejekutatuko. EA-k galdetzen du Udala zergatik ez den Karmelo Unanue edo beste gune batean sartu. EAJ-ak dio promotore pribatuentzat Odietak ez bezalako erakargarritasuna zutelako. Kooperazio sistemaren bidez kotasunaz eztabaidatzen dute eta EAJ-ak EA-ren ezker

izaeraren zalantza agerian azaltzen duen bitarteak, EA-k, EAJ-ren hirigintz politika marbellakoarena dirudiela dio.

Ondoren IZUSTARRI taldeko bozemaileak eztabaida gazteleraz ematen ari den neurrian berak ere azalpenak gazteleraz emango dituela azaltzen du. Alkatetzak bere gobernukokidearekiko erabiltzen duen jarrerak gutxienez harridura sortzen diola dio. Erabiltzen duen tonua eta errespetu falta nabarmenak omen dira. Formak garrantzitsuak dira eta galdu egin dira. Bere hitzaldia zazpi aldiz moztu du eta beste inguruabar batean erabiliko ez lituzken eta egokiak ez diren zenbait termino erabili ditu.

Alkateak erantzuten dio, "politica marbellí" egitea egoztez ez ote den termino ez egokiak erabiltzea.

Ondoren IZUSTARRIK, 2006-ko aurrekontuei buruzko testua irakurtzen du:

*Ez dira gure aurrekontuak eta ez ditugu onartuko:*

*Harrigarria iruditzen zaigu PNV-ren jarrera.Partaidetza sustatzeaz ahoa betetzen dute behin eta berriz, baina parte hartzeko formula, unean unekoa, beroiei komeni zaiena.*

*Aurrekontuak aurrera atera behar eta nortzuk hartuko dute parte? PNV-k eta EA-k.Hauteskundeak izan ondorengo lehendabiziko bileran, PNV-k eta EA-k argi utzi ziguten dena: ez gintuzten behar eta gurekin ez zuten ezertxo ere negoziatuko. Horretarako deitu gintuzten, beroien prepotentzia guztia aurpegian botatzeko.*

*Itxura denez, EA-rekin gauzak okertu zaizkienean ordea, badirudi behar gaituztela, eta gure ate joka hasi dira, esertxoren truke, berriro ere aktitude prepotentearekin, erantzunen bila etorri dira. Orduan zer!?! Ba al dezute erantzunik!?! Behin eta berriz modu lehor eta zakarrekin entzun behar izan dugu. Negoziatzen ez, inposatzen dute hauek ohitura.*

*Gurekin, Ezker Abertzalearekin hitz egin nahi duenak,ateak irekiak ditu, baina ez egoera koiuntural batean, alderdi bati interesatzen zaizkion parametrotan eta interesatzen ez zaizkion gaiei buruz hitzegiteko. Aurrekontuak bere osotasunean negoziatu beharko dituzue, eta ahal badugu, PNV+Izustarri islatuko duten aurrekontu batzuk baizik , eta hori egin ahal izateko zuen prepotentzia Batzokian utzi beharko duzue.*

*EA-k ere gure beharrik ez du izan eta beroien jarrera ez da PNV -rena baino hobea izan, nahiz eta parte hartzea aktiboki bultzatzen dute eta ezkerreko alderdia izan. Hori esaten dute behintzat.*

Alkateak barkamena eskatzen du eztabaidaren berotasunean esan behar ez zituenagatik.

Barkamena eskatu ondoren, IZUSTARRI taldeak aurrekontu egitasmoari bi emendakin aurkeztu zizkiola dio, bata osotasunezkoa eta bestea partziala. Emendakinen prozeduran luzatu genizuen galdera, xumea zen, emendakinak negoziaketa baterako



bidea irekitzen zutenak edo informazio gisakoak ziren besterik gabe galdetuz, eta tonu jakinik erabili gabe.

IZUSTARRI-k gaineratzen du galdera "xumei" erantzutea abantaila politikoa ematea dela. Aurkeztu genituen emendakinak negoziatzeko asmorik gabe egindakoak ziren. Osotasunezko emendakina ez bazenuten onartzen, prentsatuko genuela aurreratu genuen.

EB-BERDEAK-eko ordezkariak dio emendakinak aurkezten direla kalean jendeak proposatzen dituenarekin berak zubi lana besterik ez duela egiten, ez direla aurkezteagatik aurkezten.

EAJ-k zubi lana denok egiten dugula dio, denok jasotzen ditugu jendearen iradokizunak. Baina aurkezten direnean helbururen batekin aurkezten dira.

PSOE-k azpimarratzen du ez daukatela informazio pribilegiaturik.

Beste gairik izan gabe, gaueko bederatzia eta hamabost minutu direnean, Alkateak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA